



Eba eta Maria

Urte ta gizaldiak, eten bako ibillian, ba-joiazan joanez. Sarri gizonak jaso oi ebazan begi negartsuak, zeru urdiñean ezaugarriren bat idoro naita. Biziro itxaroak, noiz agertua egingo? Zeru-ate itxiak, nok edegiko? Oii! ta gizonaren lorra, nekea! Jauna, erruki zakioz.

Lau milla urte joan ondoren, ona zeruak iruntza eskiñi; Eba'gandiko kimu barria, arantza ta sasi ordez, ona lurak ekarri. Ez da betiko galzorian ipiñi ginduzan emakume aren antzeko, soñil, eder ta esangiñaren alaba baño; sortzetik garbi, eskarrez betea, ezotasuna bera.

Eleiz gurasoak berarizko atsegiñez jarten ditue, aurrez-aurre, Eba ta Maria; ao batez diñoskue: «Eba'k eriotza, Maria'k bizitza». Arek zugatzelik janez eriozpean jarri ginduzan; onek, oster, bizitz-argiz poztu gaitu. Oben-jatorrian gauza bi daukaguz: emakumea ta zugatza; onein bitartez bai-yatorku eriotz larria. Or gure galpena, zorigaitz mingotza, erbeste illun goibela, morroitza eroan-eziña. Zelan urten zorigaitz ortatik? Zelan etsai ori suntsitu ta azkatasun-argiz jabetu? Nok orretarako al eta indarra? Baña... naita al eziña iduri, ez da orrela. Jaunak eskuz eratutako emakumeak errukarriro ziria sartu euskun arren, ona beste emakume bat lotsa ori gugandik alden-duko dauana.

Atsegintegian, zugatz eta neskatxak egin eben gure zorigaitza; orain, zugatz eta neskatxek jasoak izango. «Eba'ren ordez, or Maria —diñosku Joan Krisostomo deunak—; on eta txarreko zugatz ordez,

or gurutzeta; Adan'en eriotzeak galdu ba'ginduzan, or Kristo'ren eriotza, eriotz osasungarria, gu zeruratzeke». (Hom. in S. Pascha, P.G.L., II, 768). Eta Augustin deunak: «Emakumea bide zala pekatua sar yakun; beragaitik gara guztiok obenaren morroi. Elzan gizona atzipetua izan; emakumea izan zan, lotsagarrero jausi zana, etsai pean makurtu zan, len azke ta orain menpeko... Bein gaien batasuna ausi ezkerro, or ujolak gizona ito; alan be, ezin aren pekatua kendu. Isak, ama antzuaren semeak, gurutzearen irudia eroetea merezi izan eban; baña munduko pekatuak ezeztu añako opari ezin izan. Moises urefara jaurtia, judu erria iñoren menpelik aterateko Jaunak autua, ez da gauza mundua bide oneratzeko; ejiptotarrak ondatu arren, pekatua ezin soildu; Paraon eta onen gudarozte itxas-ondatzean ito-azo arren, ez dau deabrua uxatzen, ezta onen jarrailerik be. Dabid erregeak berak diñosku gaitzean jaioa dala; eziña yako, alan be, aldiak bultzaturik, aurrera joian txirriots utsean, azkatasun biziro leratu iñok ekartzeka; gain etorkozan pekatu barrien pixuz geroago ta astunago, iñarrosi ta sastada ikaragarriz trakets bai narras, iñoren laguntza ta esku barik. Orduan emakumeari eskatu yakon gain izaren zuzen-bidea: *Ad feminam causa revertitur, et origo per originem detruncatur*. Eta jatorria jatorriaren bitartez etena izan zan; au da: pekatuaren jatorria Kristo'ren Amak legortu eban; gaitzeko enda erruki-endak ondatu, ta bizitz-erroak eriotz-erroa ito».

Eta beste bein, Maria'ren irudi aurrean, mendia eguzkitan lez, lilluraturik, ezo ta gartsu au diño: «Bedeinkatua zu emakumeetan, gizasemeentzat bizia argitara ekarri dozun ori. Gure jatorrizko amak ofñazez mundua estali euskun; Kristo gure Jaunaren Amak, oster, osasuna emon. Eba pekatu-egille; Maria irabazien sorburu; Eba'k eriotza emon euskun, eta Maria'k, bizia... Batan esanak bestearen esan eza ordaindu dau; eta onen siñistek, aren saldukeria. Orixe-gaitik, Maria'k pozez argitara dakar bere Seme Jesus, daroana daroalako zorientsu». (In Nat. Dom., P.L., XXXIX, 1894).

Entzun Ambrosi deunaren itz alai oneik be. «Lenengo gizonak galdu euskun bizia —diño—, bigarrenak eskura euskun. Lenengoak laungoikoagandik arturiko eskarra galdu eban; bigarrenak biziak batera biurtu euskun. Lenengoa neskatx batek eraginda jausi zan, bigarrenak, Neskatxagandik jaiota, jausitakoa jaso eban... Orrela gaitza emakumeagandik, edo, obeto esatearren, ona emakumeagandik; Eba'k beera jaurti ginduzanok, Maria'k jasoten gaitu; Eba'gaitik morroi, Maria'gaitik eskuko. Eba'k zugatzeko igalia bide gaitzetsi ginduzan, eta Maria'k beste zugatz bateren igali edo frutu jainkozkoaren bitartez esker edo grazia jaristen dausku, Kristo bere Semea gurutzetik dingilizka, onen ale gozoa lez, egon zan-eta». (Serm. 45 P.L., XVII, 692).